

batez aur esaminiatuei sariak emanik. Euskaltzaindiak egin zuen juraduarena, Pedro Diez de Ulzurrun apaiza, Antonio Arrue, Aingeru Irigaray, Fernando Artola, eta Alfonso Irigoyen jaunak osatu zutelarik. Amaika bertsolari joan ziran txapelketara. Andres Narvarte Goizueta-koa gelditu zan txapeldun ekitaldi sendo bat izanik nork irabaziko Bautista Perurena-rekin, au ere Goizueta-koa. Txapeldunak Lekunberriko Ayuntamientoaren kopa ederra eta **Euskeraren Aldeko Saila**-ren bi milla peseta irabazi zituen. Gaiñerakoak ere sari ederrak izan zituzten. Zegoan jente ugaria pozik egon zan euskaldun-giro eder bat gozatuaz. Nafarroako urrengo txapelketa Elizondo-n Santiago egunean egitekoa da, eremu artako bertsolariak parte arturik.

Bertsolariak dei asko dituzte, gaiñera, errietatik, eta saioak ugaritzen ari dira egunetik egunera, eta jaiak non kantatu an dabilta, umorea ta gatzak edonora eramank.

Hernandorena jauna ere aritu da mugaz bestaldean txapelketa batzuek antolatzen. Eskualzaleen Biltzarrekoak ere ari dira.

Asmoen artean Euskaltzaindiak Euskalerrri osoko txapelketa bat egitea dauka probintzietako txapeldunekin.

EUSKALZALEEN BILTZARRA

Udazkenean Euskaltzaindiak Irun-en egin nai du Euskaltzaleen Biltzarra. **Pedagogia** artu du gaitzat. Iru mailla auek ikutu nai lirake: 1. Aur euskaldunei nola irakatsi euskeraz. 2. Erdaldunei nola irakatsi euskal-izkuntza. 3. Nola gertatu euskal-irakasleak.